



ipuzkoako Odol Emaileen Elkarte



Odol Emaileen Elkarte eta Ermandadeak

Eustakio Arrojeria*

Odola ikusteak atzerakoa ematen dizun horietakoa bazara, ez larritu, ez duzu artikulu honetan odola barreiatu ikusiko eta. Hemen aurkituko duzun odola kontrolpean dago eta beharrez dagoen gaixoari mesede egiteko bidean. Nola da posible hori? Isilean baina odola ematen eta hori bideratzeko etenik gabeko ahaleginean lanean ari diren boluntarioei esker, neurri handian.

Sarreran esandakoa baieztatzeko aukera izan dugu Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarte Lehendakariorde den Sabin Urcelay-rekin hitz egin dugunean. Eta guri gai honek jakinmina eragin digunez, aldizkarian islatzea otu zaigu.

Odol Emaileen ...

Ezer baino lehen, izenburua bera argitu beharko dugu: Odol Emaileen Elkarte eta Ermandadeak. Horretaz, Ermandadeak INSA-LUDek eragindako elkarteak dira eta gainerakoak Elkarteak. Gainera, Ermandade guztiak ospitale handiren baten odol-beharrei erantzuteko sortu ziren eta Erakundearen artean, berriz, bi motakoak aurki daitezke: ospitale handiren baten beharrei erantzun nahian sortutakoak eta lurralde bati erantzun nahian eratutakoak. Araba eta Bizkaian zeudenak bertako ospitale nagusien inguruan sortuak dira eta Gipuzkoa eta Nafarroakoak, berriz, lurraldeari erantzun nahian moldatutakoak. Izenei erreparatu badiogu, berriz, berehala konturatu gara zein motakoa den: "Txagorritxuko" Odol Emaileen "Ermandadea" eta "Gipuzkoako" Odol Emaileen "Elkarte", esaterako. Gehienak 60ko hamarkadan abiatu ziren eta Nafarroakoa izan zen estatuan aitzindari. 50 urteko ibil-

bidea egingo du aurki. 50 urte bakarrik? galde dezake norbaitek. Bai, denbora gehien daramana izanik ere, 50 urte. Nola lortzen zen, beraz, lehen transfusioetarako behar zuten odola orduan? Nola moldatzen ziren? Galdera horien erantzunak inoiz entzunak bagenituen ere, ongi gogorarazi zigun Sabin Urcelay doktoreak: "Elkarteak eta Ermandadeak era-

Odola eman aurretik hainbat galdera egingo dizkio medikoak odola eman nahi duenari.



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarte



tu aurretik odola erosi egiten zen. Odola ematen zutenei ordaindu egiten zitzairen eta erosteko dirua zuenak ondo eta ez zuenak...". Injustizia horri erantzun nahian eta bizitzeko ezinbestekoa dugun urte gorriaren negozioa desegiteko asmoz eratu ziren aipatu elkarteak. "Gipuzkoako kasuan, -dio Urcelay jaunak-, Acción Católica-ko emakumeak izan ziren 1964an odola doan ematen hasi zirenak. Ekimen horren ostean sortu zen Elkarte

1965eko maiatzean. Bere gora-beherak izan ditu noski, baina gaur egun sendo gaudela esan genezake."

Euskal Herriko lurralde bakoitzak lurraldeko odol-banku propioa egitaratu jo du eta zorionez, elkarren arteko lankidetzara oso onada. Nafarroan eta Gipuzkoan ia sorreratik izan dute odol-banku propioa eta bertatik asetu izan dira lurralde horietako ospitale eta klinikak. Bizkaian zeuden hirurak, berriz, elkartu egin dira eta dagoeneko eratu dute Bizkaiko Odol-Bankua. Araban elkartze-eta eratze-fasean daude. "Lurralde bakoitzeko bat edukitzeak lana erraztu egiten du eta, gaine-

ra, hobeto koordinatzen denez, ez dugu odola eman nahi duena alferrik nekarazten. Gure egitekoa ez da gure artean lehiatzea, odol-beharrei erantzutea baizik. Oso garbi dugu hori.", esan digu gure solaskideak.

Lankidetzari esker

Ohiko odol-emaileentzat ondoren azalduko duguna aski ezaguna izango da; sekula eman ez baduzu, ordea, jakin ezazu nola egin dezakezun lehen urrats hori: hiru hilabete behin edo, zure herri edo auzora inguratuko dira honetaz diharduten profesionalak, eskuarki mediku bat eta lau erizain; litekeena da, gainera, zure ezagunen bat antolaketa-lanetan aurkitzea. Horiek dituzu Edol Emaileen Elkartearen boluntarioak. Horiei esker, eta emaileei jakina, mantentzen da osasuntsu Elkarte.

Tentsioa hartzeak eta anemia duen edo ez aztertzeak odol-emaile babestea du helburu.



Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarte

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria irakurtzen ari zaren lagun hori, inoiz eman al duzu odolrik? Zure erantzuna baiezkoa bada mila esker eman nahi dizkizut, zure odolak norbaiti mesede egin diolako honezkerok. Baina ezezko erantzuna eman dutenez, irakurtzen jarraitzeko gomendioarekin batera, elkarriketa hipotetiko batean abiatu nahi nuke, odola ez emateko erabili ohi diren aitzakiarik ohizkoenei aurre eginez.

Sekula odolrik eman ez duen pertsona bati horren arrazoiak galdetuz gero, normalean era honetako erantzunen batekin irtengo zaizu:

norik ez dit horrelakorik inoiz eskatu

Badu, arintxe eskatzen dizut neronek. Sileko gonbidapen hau ez da formala zango agian, baina bai erreala, horixe baita odolaren (edota odol-era horren)

premier duden pertsonak egingo dizutena: laneko edo zirkulazioko istripuetan zaurituak gertatuko direnak, edota operatuak izateko odolaren zain aurkitzen direnak. Hauetako batzuk, gainera, ospitale batean oheren bat okupatzen egongo dira agian, beste gaixoren batek beharko lukeen ohea hain zuzen. Eta odola pertsonen zainetan besterik ez da aurkitzen. Odol-emaiza batek bizitza bat salba dezake. Inoiz entzun al duzu gonbidapen erreala gero?

Nire odolak ez du balioko, gaixorik egon naiz-eta

Odola eman aurretik galde egizu, nahi baduzu, zure oheburuko medikuari. Baina odola emateko erabakia hartzen baduzu, aurretik azterketa mediko bat egingo dizute, eta bertan esango zaizu ea zure odola baliagarria den ala ez, beti ere zure osasunari eta ongizateari

begira. Lasai egon, eta fida zaitez gure medikuekin.

Odolik behar izanez gero, dirua badaukat, ordaindu egingo dut eta kitto

Bai, agian mundu osoko odol guztia erosteko adina diru edukiko duzu, baina ez ahaztu zuk behar duzun odol hori aurretik beste norbaitek eman duela, zu sendatu ahal izateko. Odolik gabe, zure diruak ez du ezertarako balio, odolak egon behar baitu gaixoaren zain eta ez alderantziz, dena ondo eta inolako arriskurik gabe joan dadin.

Nire odola neronek behar dut

Osasunez ongi dabilen pertsona heldu batek 5-6 litro odol dauka normalean bere gorputzean. Medikuek diotenez ez dago inolako arazorik aldian behin odola emateko, inolako kalte edo eraginik jasan gabe.

Nire odol-taldea ez da gehien eskatzen dutenetakoa

Odol-talde guztiak dira beharrezkoak, usuenak bezala baita arraroenak ere. Nahikoa da pentsatzea, zuk zerorrek ere odola behar zenezakeela. Zure taldeko pertsona guztiak zuk bezala pentsatuko balute...

Izan ere, beldurtu egiten nau odola emateak

Pertsona asko dira aurreneko aldiz odola ematera joaten direnean beldurra sentitzen dutenak. Baina ondoren beldurra galdu egiten da, eta odola ematea gauza naturala eta erraza gertatzen da. Begira lezaiezu normalean odola ematen dutenei, eta gero atera itzazu zure kontuak.

Oso gutxi pisatzen dut

50 kilo baino gehiago pisatzen dituen edonork eman dezake odola. Fida zaitez irizpide honetaz, eta baita azterketa egingo dizun medikuaren eskarmentuaz eta esperientziarekin ere.

Nik ez daukat adinik odola emateko

18 urtetik 65era bitartean bazaude, odola emateko adinean zaude.

Aurten eman dut odola jadanik

Oso ongi egin duzu, baina emaitza errepika daitezke osasunarentzat edo



Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartea

Odola eman ostean boluntarioek eskaintzen duten mokaduak indarberritzen laguntzen du eta, gainera, lagunarteko giroa ere sortu ohi da.

Odola eman aurretik egin behar diren urratsez galdetu genionean, hona zer azaldu zigun Urcelay doktoreak: "Odola eman aurretik bi gauza eduki behar dira garbi: lehena, ematen duenaren osasuna

zaintzera jotzen dela eta, bestea, odola hartuko duenarena. Horretarako, ezer baino lehen, hainbat galdera egingo dizkio sendagileak odola eman nahi duenari bere historia medikoa osatzeko. Lehen urratsa egin eta gero, tentsioa hartuko zaio eta, segidan, anemia duen ala ez aztertuko da. Dena ongi baldin badago odola emateko moduan izango da eta horretarako egokitu den gelara joango da. Eman ostean, mokadu bat hartzeko parada izango du (komenikoa izaten da) indarberritzeko eta ia berehala bere ohiko zereginetara itzuli ahal izango da."

"Hori guztia, jakina, -dio Sabin Urcelay jaunak-, elkartean ditugun 400 boluntarioei esker antola daiteke. Beraiek arduratzen dira azpiegituraz eta odol-emaleei dei egiteaz; baita bertan eskaintzen den mokadurako jakiak eta edariak lortu eta prestatzeaz ere. Koordinatuta dauden

65 talde edo ordezkariak ditugu Gipuzkoan eta guztiak beren burua autofinantzatzeko gai dira. Tarte hau aprobetxatu nahi dut hori guztia gerta dadin laguntzaren bat eman duen orori (hara-

ODOL-EMAILE IZATEKO BALDINTZAK

Odola ematera presiopean baldin bazoaz (familiakoren batek behar duelako,...), hobeto ez joatea. Odola emateak askatasunez hartutako erabakia izan behar du.

Bete beharrekoak:

- ✓ 18 eta 65 urte bitarteko adina,
- ✓ 50 kilo baino gehiagoko pisua,
- ✓ osasuntsu egon
- ✓ edozein gaixotasunaren transmisioa errazten duen iharduerarik egin ez izanaren ustea eduki

JAKIN BEHARREKOA

- ✓ ohiko bidetik 450 cm³ odol ateratzen dute emaitzeko
- ✓ 7-10 minutu irauten du
- ✓ emakumeek urtean 3 aldiz eman dezakete eta gizonek urtean 4 aldiz
- ✓ emaitza batetik bestera gutxienez bi hilabeteko tarte egon behar du
- ✓ emaitza ona baldin bada, emaitza batetik hematiak, plasma eta plaketak aterako dituzte zentrifugazio-bidez.

Autotransfusioa egiteko aukerarik ere bada, baina horretarako, ebaketa-egunak finkatuta egon behar du eta lehen emaitza ateratzen den egunetik ebaketa-egunera bitartean gehienez 35 egun igaro daiteke.

ongizatearentzat inolako kalterik gabe. Edozein pertsona osasuntsuk hainbat aldiz eman dezake odola urtean: gizonezkoak 3-4 aldiz urtean, emakumeak, berriz, 2-3 aldiz.

Ez datorkit ongi odola ematera joatea.

Gaur egun odola ateratzeko ekipo mugikorrek hurbilduko dira zuregana. Urtean hainbat aldiz joango dira geure geografiako herri guztietara txikiena izanik ere.

Horretaz gain, fabrika, establezimendu, fakultate, lanbide-heziketako institutu, etab. etara ere joaten dira. Hiriburuetan, gainera, odol-emaleen elkartaren egoitzak egon ohi dira, eta hauetan ordutegi zabala aurkituko duzu zure emaitza egin ahal izateko.

Odola eman ondoren, ahulaldia izan nuen

Ateratzen den odol-bolumena oso denbora laburrean errekupepatzen du gorputzak. Normalean atsedenditxo bat hartzea gomendatzen da, baina egia da odola eman eta handik oso gutxira edozein pertsona gai dela bere ohiko zereginetara itzultzeko.

Jende asko dago odola ematen duena

Bai, egia da, baina odola eta odol-eratorriak, gero eta kopuru handiagoan

behar dira, medikuntzak aurrera egin ahala. Eta ez genioke trabarik jarri behar Medikuntzaren aurrerapausoei guztiontzat baitira mesedegarri. Horregatik, beharrezkoa da zuk ere parte hartu eta odola ematea.

Ez nuen sekula pentsatu nire odola beharrezkoa izan zitekeenik

Jakina zure odola beharrezkoa dela. Eguneko minutu guztietan behar dute odola geure ospitaletan. Tira! Erabaki behingoz! Egin zaitez odol-emale!

Emango nuke nire odola, baina inork negoziarik egin gabe

Zorionez, aitzakia hori aspaldiko kontua da. Gaur egun inork ezin du odolarekin negoziarik egin, eta horretan zorrotz jokatzeko dugu guztiok. Negozioa egiten duen bakarra odolaren premian dagoen gaixoa da, odola ematen diotenean.

Ez daukat horretarako astirik

Zure emaitzak ekar dezakeen mesedea kontuan hartzen baduzu, erraz konturatuko zara hori ez dela nahikoa arrazoi eta, polikixeo aztertuz gero, ikusiko duzu ez zaudela uste bezain lanpetua eta aterako duzu tartetxo bat odola ematera joateko.

Ez naute onartuko emale bezala

Agian bai. Zoaz eta konproba ezazu. Onartzen ez bazaitzute ere, gerta daiteke debekua aldi baterako soilik izatea, eta orduan medikuak esango dizu noiz itzul zaitezkeen.

Nire odola ez dago ondo

Odola eman aurretik odol-lagin bat analizatuko dizute, ondoren analitika laborategian osatu eta zabalduko baldin bada ere. Laginaren analisisen emaitzen berri berehala emango dizute, eta arazoren bat balego, neurri egokiak hartzeko aukera izango duzu.

Norbaitek odola behar duenean soilik emango dut nirea

Norbait hori izan daiteke zure hurbileko senideren bat edo lagun minen bat. Ezin daiteke jakin une batean zer gertatuko den. Egoera katastrofikoetan, normalean, ez da odolik falta izaten;

jendea hunkitu egiten da gertatutako ezbeharrarekin eta samaldan joaten da odola ematera.

Eguneroko zauriak, berriz, iraunkorrak dira, egunez eguneko beharrianak ospitalean, adibidez, eta hauek bai izaten direla dramatikoak eta ikusgarriak. Zerbait ez dabil ondo gaixoak odola prest egon dadin zain egon behar badu. Zuk ez baduzu inoiz odolik eman ez al duzu egoera horretan erantzukizun-apur bat edukiko?

J. Agirre
Medikua eta OEEko kidea

Espainiako Odol-Transfusioen Elkarteak (SETS izenekoak) argitaratzen duen SETS aldizkariaren 7. alea

kin, okin, denda eta abarri) esker-
rrak emateko.”

Urre gorriaren ibilbidea

Odola ematen duzun bitartean poltsara begiratzeko kemena baldin baduzu, ohartuko zara poltsa bakarra eduki beharrean, bata besteari lotuta hiru poltsa daudela. Zergatik? Kezka bera adierazi genion guk gure solaskideari. Hona erantzuna: “Emaitza bakoitzean 450 cm³ odol jasotzen da eta horrez gain, beste bi lagin-ontzi ere betetzen dira, ondoren odola analizatzeko. Analiak ongi badaude, bildutako odola hirutan banatzeari ekingo zaio. Lehen poltsa zentrifugatuz globulu gorriak bereiztuko dira: globulu gorriak lehen poltsan utziko ditugu eta gainerakoa bigarrenean. Ondoren, bigarren poltsa zentrifugatuko da eta, oraingoan, plasma eta plaketak bereiztuko dira.” Emaitza bakoitzeko elementuen iraupenaz galdetu genionean, hona zer erantzun zigun: “Globulu gorriek 35 eguneko iraupena



Gipuzkoako Odol Emaitzen Elkarte

1 Ateratzen den emaitza bakoitza analizatu egiten da laborategian odola onartu aurretik..

3 Emaitza bakoitzetik hematiak, plasma eta plaketak aterako dira zentrifugazio-bidez.



Gipuzkoako Odol Emaitzen Elkarte



Gipuzkoako Odol Emaitzen Elkarte

2 Ondoren, ontzat eman diren poltsak sailkatu egiten dira.

4 Banandu ostean, odol-bankuan sailkatu eta gordeko dira.



Gipuzkoako Odol Emaitzen Elkarte

	Odol-emaitzak			Odol-emaile berriak 1996	Indizea 1.000 biztanleko 1996	Sailk. ind.aren arabera 1996
	1994	1995	1996			
Nafarroa	32.932 d	31.908 b	32.934	2.010	63,42	1.a
Kantabria	23.020 b	23.727 d	22.728	1.791	43,1	2.a
EAE	85.976 d	84.480 b	89.619	9.504	42,59	3.a
Balearrak	23.659 b	26.031 b	29.829	3.726	42,06	4.a
Errioxa	10.063 b	10.613 b	10.828	946	41,1	5.a
Gaztela-Mantxa	59.587 b	61.740 b	64.781	7.924	39,06	6.a
Murtzia	32.992 d	32.628 b	40.486	6.349	38,72	7.a
Katalunia	207.631 b	219.351 d	218.151	32.740	36	8.a
Valentzia	131.814 b	132.781 b	137.772	26.971	35,75	9.a
Madril	162.130 b	170.936 d	170.408	31.609	33,44	10.a
Andaluzia	220.156 b	227.697 b	233.696	50.038	33,67	11.a
Galizia	82.952 b	87.668 b	91.000	27.000	33,31	12.a
Gaztela eta Leon	78.031 b	78.947 b	80.143	10.441	31,48	13.a
Extremadura	32.282 b	32.772 d	32.297	5.633	30,42	14.a
Aragoi	34.832 d	33.953 b	34.514	4.776	29,03	15.a
Asturias	33.979 d	32.983 d	28.411	4.182	25,97	16.a
Kanariak	30.428 d	30.186 b	37.248	7.250	24,94	17.a
Melilla	1.311 b	1.430 d	1.344	508	35,75	18.a
Ceuta	0 b	260 b	331	135	4,9	19.a
Orotara	1.283.775	1.327.011	1.356.520	233.533	34,90	

ODOL-EMAITZAK KOMUNITATEKA




AFERESIA

PLAKETAK ↔ **PLASMA**

2 ordutan

Unitate-bereizketatik ateratzen dena baino **8-10 aldiz gehiago** lortzen da.



Ordubetean

Unitate-bereizketatik 220 cm³ lortzen da. Aferesi-bidez, berriz, 600 cm³.

Makinak, zentrifugazio-bidez, agindu zaion elementua bereizten du eta poltsan biltzen, gainerakoa zainetara itzultzen duelarik.

dute, plaketek 5 eguneko eta plasmak, izozterik badagoenez, urtebetekoa. Horren guztiaren kontrol zehatza daramagu eta mugetara ez hurbiltzen saiatzen gara. Plasmaren kasuan, esaterako, urtebeteko iraupena duen arren, 6 hilabetera industrigintzara bidaltzen dugu, bertatik beharrezkoak diren eratorriak atera ditzaten..”

Odol-beharrak

Lurralde batetik bestera eta urte-tik urtera aldatu egiten dira odol-beharrak. Baina, –Sabin Urcelay jaunak dioenez–, “32.000 emaitza inguru behar izaten dira Gipuzkoan urtean zehar eta hori, daudden 20.000 odol-emaileekin estaltzen da normalean. Halaber, esan behar da, ongi bagabiltza ere urte-

ro 3.000 odol-emaile berri behar izaten direla maila mantentzeko. Izan ere, urtero % 10, gutxi gorabehera, baja izaten da: batzuk, % 3 inguru, etxebizitzaz aldatzen direlako; beste % 3 bueltan 65 urte bete izanagatik geuk baja ematen diegulako eta gainerakoak arrazoi desberdinengatik. Beraz, Gipuzkoako beharrak asetzeko adina indar badugula esan badaiteke ere, ezin gintezke deskuidatu. Bestela, berehala gara gainbeherako bidean.”

Aurrera begira

Ezin lo gera, beraz, dagoen eskerari bertatik erantzun nahi izanez gero. Horretaz jakitun ari dira lanean Odol Emaitzen Elkarteak eta lankide berriak bilatzeari ekin diote. Aurten, esate-

rako, irakasleen formazio-plan-gintzan zirrikituia egitea lortu dute. Hautazko gaien artean sartu dute Odol-emaitez gaia eta 25-30 lagun apuntatu direla adierazi digu Sabin Urcelay-k. Ahalegin hori aprobetxatu egin nahi dute eta sentsibilizazio-hitzaldietan lagunduko dieten irakasleak gerturatu nahi dituzte.

Egiten diren aurrerapenak ez dira boluntarioak trebatzera mugatzen. Bada bestelako aurrerapenik ere eta teknikari dagokionez, etengabeko berrikuntzak ari dira gertatzen. Horren adibide da, esaterako, aferesia. “Ohiko bide-tik eskuratzen diren hiru elementuetako bat ateratzeko erabiltzen den sistema bat da aferesia, –dio gure solaskideak–. Ateratzen den odola makina batek bereganatzen du eta zentrifugatu ostean eskuratze-ko agindua eman diogun elementua isolatu eta poltsaratu egiten du, gainerakoa zainetara itzultzen duelarik. Sistema hau plaketak eta plasma lortzeko erabiltzen da, ez globulu gorriak eskuratze-ko; ohiko bidea baita globulu gorriak lortzeko biderik errazena.”

Zuk duzu azken hitza

Asmoak, nahiak, gura, helburuak.... Guztiak dira beharrezkoak eta horiek gabe ezin ezer egin. Baina horietan guztietan odol-emaileak dira beharrezkoenak, ezin baitaiteke ezer egin urre gorririk gabe.

Hau guztia irakurri ostean, oraindik zalantzarik baduzu segi irakurtzen eta zugandik gertu dagoen Odon Emaitzen Elkarte edo Ermandaderengana jo eta erreparorik gabe galdetu. Beraiek erantzuteko eta argibideak emateko zain dituzu. Animo eta gogoratu, *odola ematea bizia ematea da.*



* Elhuyar

Gipuzkoako Odol Emaitzen banaketa talde eta Rh-ren arabera (1997)

